

ERAKUNDEAREN KUDEAKETA PLANA

ERAKUNDEA: Eibarko Udala

URTEA: 2013

EGOERA: Aurreikusita || Eginda

TXOSTENAREN DATA: 2015/10/16

1. Familia transmisioa

1.1. Euskararen erabilera handitu etxeko esparruan, eta transmisioa ziurtatu familia kideen arteko hizkuntza izan dadin.

1.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

1.1.1.1. Guraso eta aitona-amonengan eragin, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko: hurrek egindako pegatinak, triptikoak...

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 1 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

1.1.1.2. Haur jaio berrien gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak igorri: ipuinak, kantuak, euskarazko gela apaingarriak, euskal izendegia...[Gutunak, disko digitalak, haur-hizkera erakusten duten liburuxkak, egutegiak, "speak up" materiala, autoetako pegatinak, gidak, euskararen "merchandising"-a (amantalak, sukaldeko arbelak...) eta gisakoak]

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 3 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

1.1.1.3. Gurasoengan eragin euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezen. [Aurrematrikulazio kanpainak; hitzaldiak, jardunaldiak, ikastaroak, irratsaioak, liburuxkak; Ebete-ren irakasleentzako formazioa; eta gisakoak]

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 3 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

1.1.2. KOMUNIKAZIOA

1.1.2.1. Euskarazko produktuen katalogoa ezagutzera eman: web orrian, gurasoei bidali, udalaren menpeko gunetan eskuragarri jarri...

1.1.2.2. Haurrentzako zerbitzuei buruzko informazioa ezagutzera eman. [Haurren zaintzaileen zerrenda; euskarazko filmen zerrenda ezagutzera eman; eta gisakoak]

1.1.3. EKITALDIAK ANTOLATU

1.1.3.1. Guraso berrientzako saio erakargarriak antolatu euskaraz: haurrak nola hezi, nola elikatu ondo, gaixotasunei nola egin aurre... [Kantu, ipuin eta jolasen ikastaroak; TELP tailerrak antolatu; eta gisakoak]

1.1.3.2. Familia barruan euskararen erabilera bultzatzeko egitasmo zehatzak martxan jarri: Gurasolagun... ["Kontaidazu ipuin bat" lehiaketa, "Mihiluze" lehiaketa, Jolasen Eguna, "Euskera olgetan errotu" lehiaketa, eta gisakoak]
(Kalkulua: 1 dok.; Jarraipena: 1 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

1.1.3.3. Ekitaldiak antolatu familia osoa aintzat hartuta, eta ikastetxea eta guraso elkarteekin elkarlanean: Gabonetan, Santo Tomas egunean, Santa Ageda egunean edo tokian tokiko ohiturak kontuan hartuta. [Euskarazko zinea, pailazoak eta gisakoak]
(Kalkulua: 1 dok.; Jarraipena: 2 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

1.1.3.4. Irteerak antolatu Euskal Herrian zehar: euskal kulturari lotuta dauden parke, museo, gune, ekitaldietara: ikastolen egunak, eskola publikoaren festa, Euskararen Eguna, Durangoko azoka...

2. Euskalduntzea-Prestakuntza

2.1. Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean.

2.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

2.1.1.1. Herritarrengan modu erakargarrian eragin, dakiten euskara hori plazan ere erabiltzeko. Ekimenak definitu eta martxan jarri, herriko eta inguruko eragileekin elkarlanean: kartelak, tokian tokiko komunikabideetan mezuak, euskararen egunean agintari politikoen agerraldiak, pegatinak, egutegiak... . Kanpainak sustatu. [Errenta Aitorpena euskaraz egiteko kanpaina eta gisakoak]

2.1.1.2. Etorri berriei bereziki zuzendutako sentsibilizazio kanpainak antolatu, euskara ikasteak ekar litzaiekeen onurak azpimarratuaz. Etorri berrientzako harrera programekin uztartu.

2.1.1.3. Gazteengan eragin adin talde horietarako erreferente diren pertsonetan oinarrituta: bide telematikoak, sakelekoa... [Solosalduak pertsonaia ezagunekin, motibazio saioak eta gisakoak]

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 3 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

2.1.1.4. Motibazioa landu: motibazio praktikoa (lana bilatzera bideratua...), motibazio sentimentala (gurea da, aspaldikoa...) eta motibazio kulturala (eskaintza kultural bat galtzen den sentsazioa...). [Euskaltegietan izena emateko matrikulazio kanpainak, TEL tailerrak eta gisakoak]

2.1.1.5. Euskara ikasten dabilena saritu: sarrerek zozketatu, eskualdeko egunkari edo aldizkariaren batera urtebeteko harpidetza... [Euskarazko hedabideen harpidetzak oparitu: Gaztezlulo, Hitza, Berria, Argia, besteak beste]

2.1.1.6. Euskara komunikatiboa sustatu eta zabaldu. Tokian tokiko euskalkiari lekua egin.

2.1.1.7. Euskararen aldeko ekimenetan parte hartzea sustatu: garraiobideak ahalbideratu, sarrerek zozketatu... [Ikastolen aldeko jaietara joateko garraio gastuak: ibiladiak euskara ikasleekin, ibilaldiak Mintzalaguna egitasmoko kideekin eta gisakoak]

2.1.2. KOMUNIKAZIOA

2.1.2.1. Eskualdeko euskaltegien gaineko gida osatu: zerbitzuak, ordutegiak, helbideak... eta herritarrengana zabaldu.

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 1 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

2.1.2.2. Euskara ikasteko prozesuaren gaineko informazio orokorra eskaini modu erakargarrian: web orria erabilia, triptikoak, eskualdeko aldizkaria (prozesua, udalak zer laguntzen duen, metodologia, ziurtagirien baliokidetzeak, egonaldiak familia euskaldunetan programa...).

2.1.2.3. Etorri berriei bereziki zuzendutako komunikazio kanpainak egin: mezuak zaindu, bere hizkuntzetara egokitu... ["Ni naiz... gu gara" egitasmoa eta gisakoak]

2.1.3. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

2.1.3.1. Euskara ikasteko diru-laguntzak eskaini baldintza batzuk betetzearen truke: klasera joateko edota autoikaskuntza bidez ikasteko.

2.1.3.2. Diru-laguntzak eman: udako euskarazko ikastaroetara joateko, bestelako euskarazko jardunaldi edo topaguneetan parte hartzeko..

(Kalkulua: 1 dok.; Jarraipena: 1 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

2.1.3.3. Euskararen oinarri-oinarrizko irakaskuntza finantziatu: etorri berrientzako murgiltze saioak 16 urtetik beherakoentzat; transmisioa bermatzeko, 0-6 urte arteko haurren gurasoentzako ikastaroak...

2.1.3.10. Laguntza ekonomikoa eskaini herriko euskaltegiei udalarekin lankidetzan jardun dezaten.

(*)

(Kalkulua: 1 dok.; Jarraipena: 0 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

2.1.4. IKASTARO BEREZIAK ANTOLATU ETA EUSKARRIAK ESKAINI

2.1.4.1. "Mintzalagun" proiektua jorrazeko taldeak sortu herrian (atzerritarrak eta adin guztietako euskaldun zaharrak eta berriak aintzat hartuta). Formula berriak aztertu: bazkari-laguna, kirol-laguna... [Mintzalagun, Berbalagun, Mintzakide egitasmoak eta gisakoak]

2.1.4.2. Euskararen ezagutza beharrak aintzat hartu eta ikastaroak antolatu herriko edo eskualdeko euskaltegiekin elkarlanean: galdutako trebetasunak berreskuratzeko edo birziklatzeko; euskarazko terminologia lantzeko; mintzamina lantzeko; jendaurrean hitz egiteko; herri hizkeraz; hitanoaz... Begirale, kirol entrenatzaile, eskolaz kanpoko jardueretako arduradun, irakasle, euskaltegiako irakasle, komunikabideetako esatari, merkatari, ostalari, udaltzainentzako hobekuntza ikastaroak antolatu. [Euskara ikasteko ikastaro bereziak eta tailerrak; HABEk laguntzen ez dituen taldeak, ratoria iristen ez direlako edota aldi motz baterako direlako; eta gisakoak]

(Kalkulua: 1 dok.; Jarraipena: 0 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

2.1.4.3. Etorri berriei zuzendutako ikastaro bereziak antolatu, metodologia egokia erabilita. [AISA harrera-ikastaroa HABEk diruz laguntzen du]

2.1.4.5. Euskarazko komunikazio gaitasuna hobetzeko saioak antolatu euskaltegi eta ikastetxeekin elkarlanean, jolasak, txapelketak, irteerak, antzerkiak, eta orokorrean, gai ludikoak aintzat hartuta. Ahozko adierazpena indartzeko ekintzak antolatu.

2.2. Helduen prestakuntza eskaintzan euskararen erabilera handitu.

2.2.1. SENTSIBILIZAZIOA

2.2.1.1. Helduentzako prestakuntza antolatzen dutenengan eragin (autoeskolak, jubilatuen elkarte, kultur elkarte, merkatari elkarte), ikastaroak euskaraz ere antolatzeko. [Gidabaimena euskaraz ateratzeko kanpaina eta gisakoak]

2.2.2. KOMUNIKAZIOA

2.2.2.1. Informazioa eman herritarrei euskarazko helduen prestakuntza zerbitzuez: triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian zintzilikatu...

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 1 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

2.2.3. ESKAINTZA SUSTATU

2.2.3.1. Udalak antolatzen dituen ikastaroetan euskarazkoak bultzatu (Jabekuntza eskolakoak...). ["Hezitzaileak asko egin dezakete" egitasmoa eta gisakoak]

(Kalkulua: 1 dok.; Jarraipena: 0 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

2.2.3.2. Helduentzako era guztietako ikastaro eta ekimenak antolatu euskaraz: erlajazioa, sukaldaritza, lehen arreta, dantza ikastaroak, reflexoterapia...

2.2.4. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

2.2.4.1. Laguntza eskaini, beste eragileek antolatzen dituzten ikastaroak (jubilatutako elkarteak, kultur elkarteak, merkataritza elkarteak...) euskaraz izateko: matrikula merkeagoak, diru-laguntzak, irakasleak topatzeko bideak...

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 1 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

3. Irakaskuntza

3.1. Euskarazko ikastereduak sustatu.

3.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

3.1.1.1. DBH, Batxiller, Lanbide Heziketan sartzear dauden gazteengan eragin, euskarazko eredueta ikasten jarraitzeak dakartzan abantailak azaltzeko: gutunak, smsak, hitzalditxoak... [Matrikulazio kanpainak, besteak beste]

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 1 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

3.1.2. KOMUNIKAZIOA

3.1.2.1. Gurasogai eta guraso berriei banan-banako informazioa eman 0-3 adin taldean udalerrian dauden zerbitzuez.

3.1.2.2. Etorri berriei bereziki zuzendutako hitzaldiak eta banan banako elkarrizketak antolatu euskarazko eredu berri emateko: beste etorri berri batzuen esperientzia, emaitzak, dauden laguntza aukerak... azaltzeko.

3.2. Eskolaz kanpoko prestakuntza jardueretan euskararen erabilera areagotu.

3.2.1. KOMUNIKAZIOA

3.2.1.1. Informazioa eman herritarrei euskarazko eskolaz kanpoko prestakuntza zerbitzuez: triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian ezagutzera eman...

3.2.2. ESKAINTZA SUSTATU

3.2.2.1. Hitzarmena sinatu ikastetxe, euskaltegi edota herriko akademiekin haur eta gazteei eskolako lanak egiten laguntzeko: etxeko lanen txokoa, interneten bidezko galdera-erantzunen txokoa, mintzamen saioak bazkal ostean, etorri berrientzako murgiltze saioak, material osagarria sortu...

3.2.2.2. Hitzarmena sinatu eskolaz kanpoko prestakuntzan dihardutenekin (musika eskolak, hizkuntza eskolak, margo eskolak...), euskarazko eskaintza handitzeko. [Eskola Kirola ere bai, besteak beste]

(Kalkulua: 1 dok.; Jarraipena: 2 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

5. Lan mundua

5.1. Lan munduan euskararen erabilera handitu.

5.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

5.1.1.1. Herrian eragin handia duten enprekin banan banako elkarrizketak egin, eta azaldu euskararen erabilera plana gauzatzeko jarraitu beharreko pausuak zein diren, nola parte hartu, laguntza teknikorako zein aukera dauden...

5.1.2. KOMUNIKAZIOA

5.1.2.1. Enpresei ezagutzera eman beste eskualde batzuetan alor honetan izan duten esperientzia, enpresari euskararen erabilera plan batek dakartzkion onurak, LanHitz programa...

5.1.3. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

5.1.3.1. Saritu euskararen erabilera areagotzeko planak abian jartzen dituzten enpresak: diru-laguntzak eman jarraipenerako, aipamen berezia herriko web orrian...

5.1.3.2. Kanpo aholkularitza kontratatatzeko laguntzak eskaini enpresei: enpresa zerrenda, kontaktuak, diru-laguntzak...

5.2. Merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera handitu.

5.2.1. SENTSIBILIZAZIOA

5.2.1.1. Herritarrengan eta merkatarari edo ostalariengan eragin, Hizkuntza Konpromisoaren Zigilua bereganatzearen onurez, herritarraren hizkuntza hautua errespetatzeko lehen hitza euskaraz izan dadin, hizkuntza paisaia zaintzeko... [Merkatarientzako TELP ikastaroak, "Bai Euskarari" ziurtagiria lortzeko kanpainak eta gisakoak]

5.2.1.2. Errotulazioa finkoa eta noizbehinkakoa euskaraz ere jartzeko kanpainak martxan jarri, merkataritza elkarteen bitartez...

5.2.2. KOMUNIKAZIOA

5.2.2.2. Ezagutzera eman euskararen erabilera normalizatzeko udalean bertan eta beste erakundeetan eskaintzen diren aukera eta programak: diru-laguntzak errotuluak euskaraz jartzeko, laguntza teknikoa itzulpenetarako... [Euskararen ordenantzen berri ematea, besteak beste]

5.2.2.3. Negozioetako jabeei jakitera eman zer eta non aurki dezaketen euskarazko materiala: dokumentu ereduak, fakturak, menuak...

5.2.3. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

5.2.3.1. Arloko merkataritza eta ostalaritza elkarteekin koordinatuz proposamen orokor bat luzatu euskararen erabilera gehitzera bideratuta: ezagutza lantzeko, errotulazioa eta papeleria euskalduntzeko, material idatzien katalogoa (merkealdiak, itxita/zabalik)...

5.2.3.2. Laguntza tekniko eta ekonomikoa eskaini errotuluak aldatzeko (toldoetan, ibilgailuetan...), itzulpenak bideratzeko... [programa informatiko euskaldunak ezartzeko diru-laguntzak eskaintzea eta gisakoak]

5.2.3.3. Ereduak, inprimakiak, hiztegiak, eta abar proposatu, eskaini eta sustatu.

5.2.3.4. Saritu merkatari eta ostalarien ahalegina: udaleko webean eskegi...

5.2.3.6. Euskararen presentzia kalitatezkoa bermatu noizbehinka egiten diren feria, azoka edota merkatuetako kartel, ohar eta informazio orrietan.

5.2.3.7. Aldian-aldian laginak aukeratu eta erabiltzen den euskararen kalitatea aztertu.

6. Aisia

6.1. Aisialdi eskaintzan euskararen erabilera handitu.

6.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

6.1.1.1. Hitzarmena sinatu aisialdi taldeekin, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko.

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 1 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

6.1.1.2. Aisialdi taldeetan eragin, etorri berriak, euskara eta aisialdia uztartuko dituzten ekimenak antolatu ditzaten.

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 1 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

6.1.2. KOMUNIKAZIOA

6.1.2.1. Informazioa eman herritarrei euskarazko aisialdi eskaintzaz: triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian zintzilikatu...

6.1.3. EKITALDIAK ANTOLATU

6.1.3.1. Haurrentzako ekintzak antolatu: udako eskaintza (udaleku irekiak, udako ludoteka...); opor garaietakoa (tailerrak, informatika...); jolasak (herri-kirolak, jokoak...) ["Euskera agoan" programa, eta gisakoak].

(Kalkulua: 1 dok.; Jarraipena: 9 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

6.1.3.2. Urte osoko gazte-programa planifikatu, diseinatu eta garatu. Ekintza berritzaileak bultzatu.

(Kalkulua: 1 dok.; Jarraipena: 2 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

6.1.4. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

6.1.4.1. Laguntza eskaini, aisialdi taldeetan sortu eta herritarrei helarazten zaien papeleria euskaraz egon dadin edota kalitatezkoa izan dadin: tarifa merkeagoak, diru-laguntzak, hizkuntza aholkularitza...

7. Kirola

7.1. Kirol eskaintzan euskararen erabilera handitu.

7.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

7.1.1.1. Hitzarmena sinatu herriko Klub eta kirol taldeekin, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko.

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 1 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

7.1.2. KOMUNIKAZIOA

7.1.2.1. Informazioa eman herritarrei euskarazko kirol eskaintzaz: triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian zintzilikatu...

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 2 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

7.1.3. EKITALDIAK ANTOLATU

7.1.3.1. Jendaurreko kirol jardueretan euskararen presentzia bultzatu (futbol zelaian, saskibaloia kantxan, pilotalekuan...) kartelak, megafonia, esatariak...

7.1.3.3. Herriko kiroldegietako Kirol monitoreentzako ikastaro bereziak antolatu.

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 1 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

7.1.3.4. Herriko kiroldegietako haur eta gazteentzako kirol ikastaroetan euskarazkoen eskaintza handitu.

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 1 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

7.1.3.5. Herriko kiroldegietako helduentzako kirol ikastaroetan euskarazkoen eskaintza handitu.

7.1.4. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

7.1.4.3. Baliabide teknikoak eskaini kirol taldeetan sortu eta herritarrei helarazten zaien papeleria euskaraz egon dadin edota

kalitatezkoa izan dadin: diru-laguntzak, hizkuntza aholkularitza...

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 3 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

7.1.4.4. Euskaraz antolatu nahi diren ekintzetan beharrezkoak izan daitezkeen baliabideak erraztu eta eskaini (polikiroldegia, bileretarako gelak, hitzaldietarako guneak...).

8. Kulturgintza

8.1. Kultur eskaintzan euskararen erabilera handitu.

8.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

8.1.1.1. Herriko kultur elkarteekin hitzarmenak sinatu, haietan euskararen erabilera sustatzeko.

8.1.1.2. Euskara sustatzeko programa berezietan ikastetxeak ere parte hartzera bultzatu: "Euskara zine aretoetara"...

(Kalkulua: 1 dok.; Jarraipena: 2 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

8.1.2. KOMUNIKAZIOA

8.1.2.1. Herritarren artean euskarazko kultur eskaintza ezagutarazi: gidak, katalogoak, web orriak, sakelekoa erabilia...

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 3 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

8.1.3. EKITALDIAK ANTOLATU

8.1.3.1. Herriko jaietan antolatzen diren ekitaldietan euskararen erabilera bermatu (kartelak, esku orriak, megafonia, esatariak...).

8.1.3.2. Kultura arloan herritarren eta talde ezberdinen ekarpenak biltzeko guneak sortu: web guneak, foroak, bilerak...

8.1.3.4. Haurrentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatu.

8.1.3.5. Gazteentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatu: erakusketak, hitzaldiak, proiektzioak, zinema, kantak eta bestelako musika emanaldiak, dantzak, antzerkiak, bertso dramak...

8.1.3.6. Helduentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatu: erakusketak, hitzaldiak, proiektzioak, zinema, kantak eta bestelako musika emanaldiak, dantzak, antzerkiak, bertso dramak...

8.1.3.62. Euskararen aldeko eguna, asteburua, astea.

8.1.4. KULTUREN ARTEKO HARREMANAK SENDOTZEA SUSTATU

8.1.4.1. Ekitaldiak antolatu herrialde desberdinetako ohiturak ezagutzera emateko: musika, janari, bestelako produktu, merkatu, dantza, kirol... edota beste gairen baten inguruan.

8.1.4.3. Hizlaritzat etorri berriak hartu eta ekitaldiak antolatu haien esperientzia eta jatorriaren gainean ezagutza izateko.

8.1.5. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

8.1.5.1. Baliabide teknikoak eskaini kultur elkarteek sortu eta plazaratu nahi duten papeleria euskaraz egon dadin edota egokia izan dadin: diru-laguntzak, hizkuntza aholkularitza...

8.1.5.2. Euskaraz antolatu nahi diren kultur ekintzetarako beharrezkoak izan daitezkeen baliabideak eskaini (zine aretoak,

megafonia, hitzaldietarako gunea, bestelako azpiegitura...).

8.2. Euskarazko kultur ekoizpenak eta sormena bultzatu.

8.2.1. SENTSIBILIZAZIOA

8.2.1.1. Herritarren artean euskarazko kultur produkzioen sormena eta kontsumoa bultzatu

8.2.2. KOMUNIKAZIOA

8.2.2.1. Herritarren artean euskarazko kultur produkzioa ezagutarazi: gida, katalogo, web orri, euskaltegi eta udaleko gunek ezberdinetan...

8.2.2.2. Kultur estreinaldiak ezagutzera eman eta sarrerak zozketatu: dantza, erakusketa, zinema, antzerkigintza...

8.2.3. EKITALDIAK ANTOLATU

8.2.3.1. Kulturgintza lantzeko tailerrak antolatu: marrazkiak, idazketa, argazkigintza, zinema, bideoa, web bidezkoa, literatura, dantza, kanta...

(Kalkulua: 1 dok.; Jarraipena: 3 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

8.2.3.2. Kultur arloko lehiaketak antolatu, generoa eta adina aintzat hartuta: literatura (sms-ena; ipuinak webean; maitasun istorioak; lekuan lekuko lehiaketak (Peru Abarka...); argazkigintza, bideoklipak (sakelekoaz egindako grabazioena...), marrazkiak, dantza (koreografiak...)... [Literatur lehiaketak: ipuinak, ipuin marraztuak, postalak, hiz xelebreak, piropoak, bertso-paperak, laburmetraiak...]

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 2 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

8.2.4. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

8.2.4.1. Ekoizpen berritzaileak saritu: kantagintza, bertsogintza, antzerkigintza...[Ahozkotasuna eta bertsolaritza lantzeko tailerrak eta gisakoak]

(Kalkulua: 1 dok.; Jarraipena: 0 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

8.2.4.2. Beka eta diru-laguntzak eskaini.

(Kalkulua: 1 dok.; Jarraipena: 0 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

8.2.4.3. Lokalak, guneak eskaini kultur produkzioen erakustoki gisa.

8.2.4.4. Erakundeekiko bitartekaritzan lagundu.

8.3. Euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitu.

8.3.1. KOMUNIKAZIOA

8.3.1.1. Liburutegiko liburuak eguneratu eta katalogoa herritarren artean zabaldu.

8.3.1.2. Euskal literaturako titulu nagusiak (irakurrienak, sarituak...) ezagutzera eman: udalerriko web orrian...

8.3.2. EKITALDIAK ANTOLATU

8.3.2.1. Zentro publikoetan (osasun zerbitzua, udalaren bulegoak...) irakurgai utzi euskarazko aldizkari eta liburuak.

8.3.2.3. Irakurketa tailerrak antolatu.

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 9 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

8.3.2.4. Modan dauden idazleen hitzaldiak antolatu: idazteko teknikak, ohiturak, inspirazioa, bidaiak, liburuen komentarioak...

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 1 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

8.3.2.5. Urtean zehar euskaraz liburu gehien alokatu dituen pertsonentzako sariak antolatu.

8.3.2.6. Liburutegiko bazkideen artean aldian-aldian liburuak oparitu.

8.3.2.7. Liburuaren eguna ospatu.

(Kalkulua: 1 dok.; Jarraipena: 0 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

8.3.2.47. Bibliotekak euskarazko liburuz hornitu

8.4. Tokian tokiko hizkera, toponimia, historia, ohiturak jaso eta hedatzea sustatu.

8.4.1. SENTSIBILIZAZIOA

8.4.1.1. Herritarrengan eragin euskal kultura, kondairak eta toponimia ezagutzera emanda: gida bat, argitalpen txiki bat...

[Eskola-agendak, egutegiak eta gisakoak]

8.4.1.3. Tokian tokiko hizkera prestigiatzeko jardunaldiak edo saioak antolatu: berezitasunak gizarteratu, hitanoa...

8.4.1.4. Tokian tokiko euskararen erabilera bultzatu.

8.4.1.15. Kale neurketak egin.

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 3 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

8.4.2. EKITALDIAK ANTOLATU

8.4.2.1. Herriko istorio zaharrak, kondairak, ohiturak... ezagutzera eman: hitzaldiak ikastetxeekin elkarlanean; herriko adineko jendearekin elkarlanean, jai esanguratsuetan hizlari bat ekarri, grabaketak egin eta web orrian jarri...

8.4.2.2. Gai horiei lotuta lehiaketak antolatu herriko haur eta gazteen artean.

8.4.3. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

8.4.3.1. Tokian tokiko hizkera eta toponimia ondarea jaso, argitaratu eta hedatu (ahozkoa zein idatzizkoa): toponimia, inguruko azpieuskalkiaren ezaugarriak, bilakaera, haur eta gazteen ezagutza eta erabilerari buruzko azterlana...

(Kalkulua: 1 dok.; Jarraipena: 3 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

8.4.3.2. Herritarrentzat eta udalarentzat interesgarriak izan daitezkeen gaiak ikertzeko bekak eskaini: urtekariak, egutegiak... egiteko.

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 1 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

8.4.3.3. Diruz lagundu herritarrentzat interesgarriak izan daitezkeen eta ikertuta dauden gaiak argitaratzea, webean zintzilikatzea,

erakusketa tematikoak egitea...: nekazaritzako hiztegia, itsasokoa, erremintak, antzinako argazkiak...

(Kalkulua: 1 dok.; Jarraipena: 1 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

9. Komunikabideak

9.1. Herri edo eskualde mailan euskarazko komunikabideen garapena sustatu edota euskararen erabilera bultzatu egungo komunikabideetan.

9.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

9.1.1.1. Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtu.

9.1.2. ESKAINTZA SUSTATU

9.1.2.1. Udalerrri bakoitzaren beharretara egokituko den euskarazko komunikabideen bideragarritasuna aztertu: aldizkari xume bat, web orriaren bitartezko komunikazioa, blogg-ak, sms bidezko albistekak...

9.1.2.2. Eskualdean ari diren euskarazko komunikabideen hedapena lagundu (astekariak, hilabetekariak, gazteentzakoak, musika arlokoak...), harpidetzak zozketatuz, herriko web orrian linka eginez...

9.2. Publizitatean euskararen presentzia bultzatu.

9.2.2. ESKAINTZA SUSTATU

9.2.2.2. Udalak egiten dituen publizitate ekimenetan euskara lehenetsi.

9.2.3. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

9.2.3.1. Enpresa, merkatari eta elkarteei laguntza tekniko eta ekonomikoa eskaini publizitatea euskaraz egin dezaten: itzulpen gastuak, publizitatearen ehuneko bat...)

10. Teknologia berriak

10.1. Teknologia berrietan euskararen erabilera handitu.

10.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

10.1.1.1. Herritarrengan eragin, batez ere gazteenengan, euskaraz jo dezaten sarera, informazio bila.

10.1.1.3. Herritarrengan eragin, batez ere gazteenengan, sakelakoetan, ipodetan eta gainerako tresnetan euskarazko menuak, mezuak... euskaraz izan daitezten.

10.1.2. KOMUNIKAZIOA

10.1.2.1. Herritarrei teknologia berrien arloan euskaraz sortzen dena aditzera eman (programak deskargatzeko aukerak, Xuxen, telefonia mobila, elebila, weg gune berrien zerrenda...): sms bidez, gida edo katalogoa erabilita, web orrian zintzilikatuta, www.euskara.euskadi.netera linkak...

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 1 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

10.1.2.2. Herritarren eskura jarri euskararen kalitatea hobetzea helburu duten argitalpenak: idatzien ereduak, hiztegi elektronikoak...

10.1.3. ESKAINTZA SUSTATU

10.1.3.2. Euskarazko eskaintza bermatu KZ guneeetako ikastaroetan.

10.1.3.3. Erabilgarri jarri udal guneeetan adin guztientzako eta era guztietako jokoak eta bestelako programak.

10.1.3.5. Udalaren web orrian Euskararen Txokoa sortu eta euskararekin zerikusia duten edukiak (herriko hizkeraren ezaugarriak, azken inkesta soziolinguistikoaren emaitzak, euskararen normalizazio prozesuan sortzen den informazioa, ekimenak, egitarauak herrian bertan egiten diren kale neurketak edo bestelakoak...).

(Kalkulua: 0 dok.; Jarraipena: 1 dok.; Balorazioa: 0 dok.)

10.1.3.6. Sarea euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtu.

10.1.4. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

10.1.4.2. Herritarrek sarean ezartzen duten informazioa euskaraz ere egon dadin laguntzak bideratu: testuak euskaraz emateko, zuzentzeko...